



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**JON GIL BELTZA JAUNAK, ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA, ASTEASUKO  
UDALEKO BITARTEKO IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK,**

**ZIURTATZEN DU:**

Udalbatzak, 2018ko ekainaren 26an eginiko bilkuran, honako erabakia hartu zuen,  
A.F.A.ren 206 artikulua salbuespenarekin:

---

### **Tolosaldea Garatzen: ingurumeneko aholkularitza zerbitzua**

ASTEASUKo udala neurri txikikoa da giza eta ekonomi baliabide urriekin, eta horren aurrean tokiko garapen jasangarriko proiektuak bere kabuz garatu eta behar bezala ezartzeko modurik ez du.

Ondorioz, Tolosaldea Garatzen, S.A., eskualdeko garapen agentziarengana jo izan du azken urteetan zerbitzu hori udal desberdinen artean partekatu ahal izateko beharrezkoak diren teknikariak kontratatze eta haien bidez zerbitzua bermatzeko eskatuz.

Aurretik indarrean egon den hitzarmena 2017ko abenduaren 31n amaitutzat jo zen, izan ere, zerbitzu hori eusteko beharrezkoak ziren teknikarien kontratazioak auzitegietara eraman ziren.

Une honetan, Tolosaldea Garatzen, S.A.k zerbitzua jarraitzeko moduan dagoela jakinarazi dio Udalari.

Tolosaldea Garatzen, S.A.k eskualdeko udal guztien artean sortutako erakundea izanik, eta bere gizarte xedean aurreikusitakoari jarraiki, haien arteko zerbitzu partekatuak sustatzen ditu, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta garapen iraunkorreko proiektuak garatzeko plataforma moduan.

ASTEASUKo udalari zerbitzua eskaini ahal izateko, eskualdean zerbitzu partekatuetarako behin betiko kontratazio eredu finkatu bitartean, eta beti ere, behin behinekotasun irizpidearekin, Tolosaldea Garatzenek garapen iraunkorreko proiektuetarako teknikari partekatuak kontratatu ditu.

Hirigintza eta Obretako Informazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Bera, Udalbatzak

## ERABAKI DU

LEHENA. ASTEASUko Udala eta Tolosaldea Garatzen, S.A.-ren arteko lankidetzahitzarmena onartzea, ASTEASUko Udalean modu partekatuan garapen jasangarriaren inguruko ekimenak garatzeko.

BIGARRENA. Lankidetzahitzarmenaren sinadurarako ahalmena ematea Asteasuko Udaleko Alkate-Lehendakariari.

HIRUGARRENA. Erabaki honi, eta bere edukiaren parte bezala erantsi onartu den lankidetzahitzarmenaren testua, 1. Eranskin moduan.

### I. ERANSKINA

LANKIDETZA-HITZARMENA, ASTEASUko UDALA ETA TOLOSALDEA GARATZENen ARTEAN, TOLOSALDEKO UDALERRIETAN TOKIKO GARAPEN IRAUNKORREKO POLITIKEN SUSTAPENERAKO

Tolosan, 2018ko ekainaren XXan

## BILDURIK

Pili Legarra Kortajarena, ASTEASUko alkatea, ASTEASUko Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz.

Olatz Peon Ormazabal, Tolosaldea Garatzen S.A.ko lehendakaria, erakunde honen izenean eta hura ordezkatzuz.

Esku-hartzaileek, beren karguei dagozkien funtzioak betez, esku hartzen duten bezala, hitzarmen honetarako erabateko gaitasuna aitortzen dietela elkarri, eta ondorio horietarako:

## ADIERAZTEN DUTE

**Lehenengoa.-** Udal kudeaketa garapen jasangarriaren printzipioetara egokitzeko ekimenak, programak eta estrategiak aurrera eraman behar direla. Garapen iraunkorra, hain zuzen ere, hauxe da: beste gune geografiko batzuen edo etorkizuneko belaunaldien garatzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe uneko eta etorkizuneko tokiko beharrak asebetetzea.

**Bigarrena.-** ASTEASUko udala neurri txikikoa dela giza eta ekonomi baliabide urriekin, eta horren aurrean tokiko garapen jasangarriko proiektuak bere kabuz garatu eta behar bezala ezartzeko modurik ez duela. Ondorioz, Tolosaldea Garatzen, S.A., eskualdeko garapen agentziarengana jo duela zerbitzu hori udal desberdinen artean partekatu ahal



**ASTEASUKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

izateko beharrezkoak diren teknikariak kontratatzeko eta haien bidez zerbitzua bermatzeko eskatuz.

**Hirugarrena.-** Tolosaldea Garatzen, S.A.k eskualdeko udal guztien artean sortutako erakundea izanik, eta bere gizarte xedean aurreikusitakoari jarraiki, haien arteko zerbitzu partekatua sustatzen dituela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta garapen iraunkorreko proiektuak garatzeko plataforma moduan.

**Laugarrena.-** ASTEASUKo udalak eskatutako zerbitzua eskaini ahal izateko, eskualdean zerbitzu partekatuetarako behin betiko kontratazio eredu finkatu bitartean, eta beti ere, behin behinekotasun irizpidearekin, Tolosaldea Garatzenek garapen iraunkorreko proiektuetarako teknikari partekatua kontratatuko dituela.

Ondorioz, ASTEASUKo Udalak eta Tolosaldea Garatzenek, lehenago adierazitakoa kontuan izanik, lankidetzaz hitzarmen hau sinatu dute, klausula hauek kontuan hartuta:

### **KLAUSULAK**

**Lehenengoa.-** Hitzarmen honen helburua da ASTEASUKo Udala eta Tolosaldea Garatzen S.A.ren arteko harremana arautzea, ASTEASUKo Udalean modu partekatuan garapen jasangarriaren inguruko ekimenak garatzeko Tolosaldea Garatzen, S.A.k kontratatuko duen teknikariaren zerbitzuari dagokionez.

**Bigarrena.-** Hitzarmen hau sinatzean, Tolosaldea Garatzen S.A.k eta ASTEASUKo Udalak, konpromiso hauek hartzen dituzte:

1. Tolosaldea Garatzen S.A.k ASTEASUKo udalean garapen iraunkorreko estrategiaren jarraipenean modu partekatuan jardungo duen teknikariaren funtzioak honakoak izango dira:
  - Udalaren garapenerako beharrezkoak diren ekintzak sustatu eta dinamizatu, beti ere garapen iraunkorrean oinarrituta.
  - Udalerriko Tokiko Agenda 21 sustatu eta informazioa zabaldu.
  - Bere gaiekin bat datozen diru laguntzen eskaerak bideratu eta jarraipena egin.
  - Ekintza planen jarraipena burutu eta errebisioetaz arduratu.
  - Bere kualifikazio profesionalarekin bat datorren beste edozein zeregin, halakorik agintzen badiote.
  - Eskualdeko koordinatzailearen esanetara egongo da, hark sustatutako lan ildoak eta ekintzak bultzatuz.
2. Tolosaldea Garatzen S.A.k urteko gestio plana burutuko du bertan zehaztuko dituelarik hurrengo urterako aurreikusitako sarrerak eta gastuak. Kanpoko laguntzen bitartez osatu gabeko defizita, teknikariaren dedikazioaren arabera banatuko da udal erabiltzaileen artean, eta ondorioz udalei fakturatuko zaie.

3. ASTEASUko Udalarekin ondorengo baldintza hauek adostu dira honako hitzarmenaren bidez:

- Dedikazioa: teknikari baten lanaldi osoaren (urtean 1.622 ordu) %20-a, hau da 324 ordu urtean. Dedikazioa aldaezina izango da hitzarmen hau indarrean dagoen artean.
- Zenbatekoa: 32 euro orduko. Kopuru hau aurreko urteko EAEko KPIaren arabera eguneratuko da datozen ekitaldietan.
- Tolosaldea Garatzenek bere udal bazkideei eskainitako zerbitzuak ez daude BEZari lotuta.
- Zerbitzu honen fakturazioak Tolosaldea Garatzenen BEZaren tratamenduan eta "prorrataren arauan" aldaketarik eragingo balu, udalei aplikatu beharreko kostua berrikusi beharko litzateke.
- Zerbitzuaren egutegi eta ordutegia Tolosaldea Garatzen, S.A. eta ASTEASUko udalaren artean adostuko dira.
- Asteasuko Udala eta Tolosaldea Garatzen, S.A.ko teknikariaren artean ez da lan-harremanik egongo; bere ondorioz:
  - Tolosaldea Garatzen, S.A.k izendatutako teknikaria zerbitzua era egokian emateko titulazioa eta esperientzia izango du.
  - Tolosaldea Garatzen, S.A.k teknikariaren lanaren antolamendua, kontrola eta zuzendaritza kudeatuko du; hortaz, Asteasuko Udalak ez ditu ezarriko Tolosaldea Garatzen, S.A.ko teknikariaren oporrak ezta ordutegiak. Nolanahi ere, Udaletxeko bulegoetako ordutegiaren barne emango da zerbitzua, astelehenetik ostirala arte, udaletxearen irekiera eta itxiera fisikoaren ordutegiekin bat.
  - Tolosaldea Garatzen, S.A.ko bulegoa izango da teknikariaren lan-zentroa eta bere giza- eta material-baliabideekin egingo du lana; hala ere, Udalak hala eskatzen badu, teknikariak Udaletxeko lehenengo solairuan dagoen bulego partekatu bat erabiltzeko aukera emango du, eta bertako materiala erabili ahal izango du (eserlekua, mahaia, ordenagailua eta inpresora). Azken egoera hori eman ahal izango da kasu hauetan: herritarrak bilera eskatzen badu, teknikariak udaleko espedienteak kontsultatzeko beharra badu, eta alkate andreak hala eskatzen badu.
  - Asteasuko Udalak ez dizkio emango zuzendaritza-instrukzioak Tolosaldea Garatzen, S.A.ko teknikariari; bere orde, instrukzio horiek Tolosaldea Garatzen, S.A.k eta Asteasuko Udalak izendatutako arduradunen artean bideratuko dira.

4. ASTEASUko Udalak bere gain hartuko ditu bertan hitzarmen honen baitan lanean ari den teknikariaren lan kontratutik eratorri daitezkeen kostu eta balizko kalteordain guztiak, beti ere teknikariaren zerbitzuak udal horretan izan duen dedikazio eta iraupenaren arabera.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**Hirugarrena.**- Hitzarmen honen bitartez teknikarien dedikazioa bakarrik arautzen da.

Teknikarien lanetik erator daitezkeen proiektuek tratamendu berezia izango dute eta kasu bakoitzean aurreikusiko da nola kudeatu kostua eta kanpotik lor daitezkeen finantziakzioa.

**Laugarrena.**- Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean eta **2018ko abenduaren 31** arte iraungo du; beste bi urtez luzatu ahal izango da; urte bakoitzaren amaieran zerbitzua baloratuko da eta beharrezko egokitzapenak egingo dira kasuan kasu.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek bertan behera utz dezakete, baldin eta hiru hilabete lehenago jakinarazten badiote beste alderdiari.

---

Eta horrela jasota gera dadin, eta behar diren ondorioetarako, honako ziurtagiria luzatzen dut, Alkate Andrearen oniritziarekin, Asteasun, 2018ko ekainaren 26an.

O.I.

ALKATE ANDREA



